



JON KORTAZAR

ERREALITATEAREN MAILAK

Nevadako Egunak' argitaratu ostean, eta dirudienez, liburu hartako batasunarekin bat ez zetozelako kanpoan utzi ondoren, Bernardo Atxagak 'Txoriak kolpeka' izenburupean bilduta eman ditu argitara ipuin bi eta saiakera bat. Inguruan jaso ditudan iritzien artean badira gupida handirik gabe agertu direnak: urtarrila izan eta beherapenen saldoa dela liburuan agerturikoa.

Ez naiz ni aburu horretakoa. 'Txoriak kolpeka' liburuak bere txikitasunean, eta nahi bada apaltasunean, 'Nevadako egunak' hartan ziren obsesio beretara egiten du jauzia. Renon idatzitako egunerokoa margo nagusia, pintura handia bazen, 'Txoriak kolpeka' bildumak marraztutakoa era fin eta sotilez ematen du. Olio lana egin orduko, pintura osatu orduko, egindako marrazki miresgarriak.

Liburu biotan obsesio berberak daude, lan egiteko antzeko formak eta batez ere, artea lortzeko tekniken aberastasun izugarria. Lehen ipuinak eragin dit zartada. 'Andoniren heriotza LSDaren argitan' deituriko ipuinak agerian uzten ditu berriz Bernardo Atxagak estetika sasoi honetan dituen asmoak.

Lehenik, zirkuluaren teoria. Atxagak Arestiz argitaratu berri duen lan batean ere irakurri diot 'Nevadako egunak' nobela autobiografikoan ageri zen ideia berbera: errealitatea osatzeko zirkulu desberdinen beharra dagoela, alegia, ez garela soilik zirkulu batean bizi duguna. Zirkulu desberdinek, agerikoenetik hasi eta sakonenera helduz, sortzen dutela guk bizitzaz dugun ustea, eta hark sortzen gaituela. Sakon-sakonena dugu orain urte asko (800.000 mila urte gutxi gorabehera) egindako hilobi batek sortzen duen

eragina, aspaldian izandako kulturak badu zeresana gure munduan. Zirkulu ahaztu, urrun eta sakon horretatik irten ahal du idazleak beste zirkulu batera, hain zuzen ere LSDaren argitan kontatzen duen lagun hildako biren (Redinen eta Andoniren) amets itxura duen historiara, justu estetika pop bati atxikia. Hirugarren ziklo batean Andoniren heriotza modu errealista batez kontatzen zaigu, ez baitu alferrik aipatzen narratzaileak: «Errealitatera itzuli nahi izan nuen» (13.or.).

Bigarrenik, errealitate maila sakonen ikuspegia eta antzinakoan agerpena gudan. Ora in 800.000 urteko heriotzak eta hilobiratzeak badu zerikusirik gaur eguneko hilobiratzearekin. Gure izaera beste izaerak osatzen dute eta zentzu horretan metafora biologikoen aspaldiko 'Obabakoak' ipuinetako 'Txirrina pantika' hura gogoan, gaurko 'esfinge atropos'ek ere izuaren metafora osatzen du.

Hirugarrenik, irrazionaltasunaren eragina pertsonen bizitzan, patuaren indarra, ezinbestean agerpena. Txoriak kolpeka ari dira kristalean pertsonaien heriotza agertuz, bidenabar: «Belea herenegun goizean hil zen. Eta Andoni ere herenegun goizean hil zen Houstonen? Zer iruditzen zaizu? Halabeharrra?» (45. or.). Halabeharra edo logikaz azal dezakegun kointzidentzia? Ez jakin. Txoriek ematen duten heriotzaren aipamen horrek batzen ditu hari gorri lehene ipuina eta Lawrence Arabiakoari buruzko saiakera.

Patuaren eta logikaren arteko bizitza da pertsonok bizi duguna. Eta hiru literatur testuok indarrez eta miresmenez jarri digute irakurleoi galdera begien aurrean. Halabeharra ala logika?


Lokamutsezko mundua

■ JAVIER ROJO

Asier Serranoren literatur mundua berezia da oso. Bere testuei esker bidaia egiten dugu guk ezagutzen ditugun inguruen antza daukaten eskualdeetara. Baina gure mundua gogora ekartzen badute ere, badute zerbait, gure ohiko lekuetatik urrun jartzen dituen. 'Abisalia' izenburuko idazlan hau horren adibidea izan daiteke. Lehenengo eta behin, esan behar da irakurleak, batez ere idazlanak generotan sailkatzeko joera badu, ez duela oso ondo jakingo zeren aurrean dagoen: nobela da irakurtzen ari dena? narrazio sorta? prosaz idatzitako poemak ote...? Agian esan liteke Asier Serranoren liburua hori guztia dela batera. Liburua atal laburrez osatutako idazlan moduan aurkezten da. Atal horiek gehienak prosazkoak dira (bada poemaren bat ere), eta atalen arteko harreman sendorik planteatzea zaila bada ere, dudarik gabe liburua eraikitzeak erabili diren zati horiek badute elkarren arteko harremanik. Pertsonaiak errepikatzen dira, atal batzuetan idazlanaren beste tokiren batean agertzen den gertakari bati buruzko erreferentzia agertzen zaigu, noizean behin atalek elkar osatzen dutela ematen du... Ia nobela bat izango balitz bezala, baina nobela hori ez litzateke normalean irakurtzera ohituta gauden nobelen il-dokoa, istorioaren nondik-norakoa ezin baitaiteke jarraitu ohiko moduan. Alde honetatik begiratuta, ezinbestekoa da irakurlearen parte hartzea argumentua poliki-poliki osatzeko, baina jakinda argumentua azkenean

beti lausotuta geratuko zaiola.

Eta argumentu horretan ikusten dugu leku bat, Abisalia izenekoa. Pertsonaiak han agertzen dira eta ez dago argi leku hori ihesleku moduan agertzen zaien ala kartzela moduan.



ABISALIA

Egilea: Asier Serrano.
Narrazioak.
Argitaletxea: Txalaparta. 192 orr. Tafalla, 2014. Salneurria: 17 euro

Ametsezko (lokamutsezko) mundu horretan dauden pertsonaiak patuaren eraginpean daude, esperantzarik gabe, eta desira itsuek edota nerabezaroko oroitzapenek biziazazten dituzte. Ez dirudite pertsonak, baizik eta ispilu deformatu batean sortzen diren islak, batzuetan mamuen gorpuztasuna baitute. Eta sortzen diren irudi desitxuratu horietan surrealismoak berebiziko garrantzia du, ohiko logikatik aldentzen baita.

Bestalde idazkera ere ikusgarria da, eta testu batzuk prosazko poemak bezala aurkezten dira. Azken urte hauetako euskal literaturaren bilakaera ikusita, benetan eskergarria da hau bezalako liburu batekin topo egitea, kontsumoko literaturaren aurka idazleak oraindik ere pentsatzen baitu literaturan funtzio poetikoa deitzen zen hark garrantzia duela.



«Sortzaile arruntok autobusean ibiltzen gara, ez laino artean», dio Urretabizkaia.

ARANTXA URRETABIZKAIA

KULTURA ETA DIRUA



Kultura esan edo entzuten dugu eta askoren burmuinean errealitatearekin zerikusi gutxi duten irudiak sortzen dira. Sarritan ametskin lotuak edo, agian, film bateko irudiak, kamera geldian, laino artean. Hori dira askorentzat kultur sortzaileak, laino artean eta erdi ametsetan dabilzan pertsonak.

Irudi gozoegi horiek izan dezakete loturaren bat kultur sortzaile ospetsuenekin, baina ez dute zerikusirik sortzaile arruntok. Gutako gehienak langile soilak gara, sarritan kontu korronea dardarka dugunok. Ez gaituzu laino artean ikusiko, bai supermerkatuaren ilaran edo autobusaren zain.

Badakit topikoak beste zerbait diola, topikoak lainoak eta distirak aipatzen dituela, diru laguntza amaigabeak eta abantaila izugarriak. Topiko horrek, ordea, ez du egiaren izpirik.

Langileak gara eta ez gutxi. Abendu honen hasieran plazaratu den azterketa batek dio zazpi milioitik gora garela Europan, kultur langileok. Gorde zenbaki hori buruan: ezin hainbeste jende kokatu unibertso osoaren lainoen artean.

Bada, 1,2 milioi dira telekomunikazioen arloan lan egiten duten europarrak; beste hainbat, kimikaren esparruan. Eta automobilgintzan lan egiten dutenak, hiru milioi. Kultur langileak ugariago gara automobilgintzan, telekomunikazioetan eta kimikaren esparruan, hirurak baturik lan egiten duten pertsonak baino.

Beraz, autobusean zure ondoan, merkatuan zure aurretik edo semaforo berdearen zain zure aldamenean dagoen pertsona hori, zuk bezain itxura arrunta duen hori kultur langilea izan daiteke. Agian zuk esango zenuke automobilgintzan egiten duela lan edo telefonia enpresa batean, baina aukera gehiago ditu kultur langile izateko.

Dena den, kaleko jendearen aurreiritziek garrantzi txikia dute; agintarien aurreiritziek, berriz, pisu izugarria. Komeniko litzaieke jakitea kultura ez dela, bakarrik, distira eta loria. Langileak gara, gainerako langileek adina errespetu eta arreta merezi duten pertsonak.

SALDUENAK

FIKZIOA

- 1 Nevadako egunak**
Bernardo Atxaga. Pamiela
- 2 Txoriak kolpeka**
Bernardo Atxaga. Pamiela
- 3 Gerra txikia**
Lander Garro. Susa
- 4 Kapital publikoa**
José Luis Otamendi. Susa
- 5 Zaindari ikusezuna**
Dolores Redondo. Erein

EZ FIKZIOA

- 1 Euskararen isobarak-hamasei gezur...**
Pako Eristi. Erein
- 2 Gorbeialdeko sendabelar...**
Gorka Menéndez. Beta
- 3 Xabier Solano Maiza-Triketixa liburua**
Xabier Solano Maiza. 5gora-ez da entzuten
- 4 Memoriak. Mikel Laboaren biografia...**
Mari Sol Bastida. Elkar
- 5 Eutsiko diogu? Sorkuntzaren...**
Fermin Etxegoien. Erein